

HERNANIK kronika

2003 urtea
Abenduak 31
Asteazkena
Alea: 977
www.kronika.net

Sahararako jakiak biltzeko dei egin dute herriko hainbat taldek "inoiz baino gehiago behar duten urte honetan"

■ Udalak, ikastetxeak, Saharako haurrak etxean hartutako familiek, Eliza Ebanjelikoa eta Eliza katolikoak eta kooperazio taldeak daramakite aurrera kampaina ■ Helburua da janez betetako kamioi bat bidaltzea Hernanitik.

HERNANIN martxan da Saharara bidaltzeko jakiak biltzeko kampaina eta Hernaniko talde asko eta Udalak bat egin dute asmo horretan. Astelehenean prentsurrekoan eman zituzten kampainaren inguruko xehetasunak eta dei egin zieten herniarrei oinarrizko janariak ematera sensibilizatzeko. Orain, Biteri kultur etxean utzi litzek jakiak, baina, kampainaren bultzatzai-leek nahi dute supermerkatu eta komertzio txikietan ere biltzeko modua egitea eta bide horretan laguntza emateko prest dauden guztiak pozik hartuko dituztela esan zuten. Horrez gain, ikastetxeetan ere biltzekoak dituzte jakiak.

Oinarrizko jana

Garbantzuak, lentejak, baba-rrunak, arroza, oliao, latako atuna eta esne hautsa dira bidali beharreko jakiak. Garbantu, lenteja eta babarrunak lehorrek behar dute eta ez latakoak, leku gutxiago behar baitute. Gainerako janik ez dute hartuko, oinarri oinarriz-



Herriko talde eta erakundeetako arduradunak, Txema Mercado Kultura zinegotziarekin batean.

koa behar baitute. Oraingo jana Biterin utzi behar da eta kampainaren bultzatzaillek jakinazko dute supermerkatu edo dendetan noiz bilduko dituzten. Biteritik Kronikari esan diotenez jendea ari da dagoeneko gauzak eramaten eta aurten jaki dezenten biltzea pentsatzen dute. Kampaña diriz lagundu nahi duenak ere badu aukera eta lortutako dirua kamioiak lortu eta janariaren portea ordaintzeko erabiliko da. Kontu zenbakia: Kutxa: 2101 0200 44 0011305190. Laboral: 3035 0060 45 0600047469

Aurten, jan falta haundi
Sahararrak etxean hartzen dituzten familiarrek hango egoeraren berri eman zuten. Orain 30 urte inguru Marokok Argeliako kampamentuetan bizitzera behartu zituenetik ia nondik bizirik ez dute sahararek eta egoera horri aurre egiteko behar dute hemengo laguntza. Aurten gainera uholdeak izan dituzte desertuan, 3 eguneko euri jasen ondorioz eta hondatutako eraikinen artean dago janari almazena. "Inoiz baino laguntza haundiagoa" behar dute sahararrek aurten, gurasoen hitzetan eta

horregatik kampainari sendo heltzea erabaki dute. Kampañari hasiera ofiziala emateko karpa edo haima haundi bat jarriko dute hilaren 3an, igandearekin, Plaza Berrian, 09:00etatik 14:00etara.

Umeak etxean

Bestalde, Saharako umeak udaran etxeetan hartzeko dei ere egin zuten aurkezpenean. Udalak 10 sahararren bidaia ordaintzen du, baina, iaz 7 bakarrak etorri ziren familia gehiago bilatu ez zutelako. Aurten 10 gaztetxo ekartzeko modua egin nahi dute. □

Loran eta Arruartek tratu txarrak salatu dituzte

■ Bi hernaniarrak Soto del Realen espoxeratu dituzte, Guillermo Ruiz Polanco epaileak aginduta.

GORKA Loran eta Garikoitz Arruarte lehengo asteazke-nean atxilotu zituzten Hernanik eta Donostian. Angel Acebes Spainiako Barne Ministroak esan zuenez Madrilgo tren estazio batean attentatua egitekoa zuten astekanean bertan. Bost egun egin dituzte inkomunikatuta Spainiako poliziaren eskue-tan eta astelehenean pasa ziren Ruiz Polanco epailearen aurretik. Biek tratu txarrak

salatu dituzte, Askatasuna erakundeak jakitera eman duenez. Guillermo Ruiz Polanco Auzitegi Nazionaleko epaileak Soto del Realen espoxeratzeko agindua eman du, trenean zijoazen 180 lagunen kontrako hilketa saioa, talde armatuko kide izatea eta armak eta lehergailuak eduki-tza leporatuta. Ruiz Polancok Josu Oiaga eta Ane Biurrarena herniarren aur-kako bilatze eta atxilotze

agindua ere eman zuen eta Ane Biurrarena bere kabuz aurkeztu zen atzo epailearen aurrean eta libre geratu da fidantzarik gabe.

Arruarte ospitalera

Askatasuna erakundeak jakin arazi duenez bi herniarrek tratu txarrak salatu dituzte epailearen aurrean. Arruarteri kolpe gogorrak eman zizkiot-en atxiloketa une beretik eta pistolarekin mehatxu egin

zioten besteak beste. Askatasunak dioenez kolpeen ondorioz lehengo lesio zahar bat berritu zaio zerbikaletan eta ospitalera eraman eta koilarina jarri zioten eta tratuak hobera egin zuen hortik au-rerra. Loraneak, berriz, lehen hiru egunetan gogor jipoitu zutela esan zion abokatuari eta bizkarrean eta beso azpi- etan ubelduak dituela. Azken egunera arte lorik egin ez diotela utzi ere salatu du. □

Opari hauetan ditugu zuretzat:

1- LA CASONA DE LUIS: (Kantabria)
2 gau: 59,90 □

2- LEKEITIO: 2 gau tratamentuarekin
EMPERATRIZ ZITA hotela 133 □ - M/P

3- CASA GÜELA: (Kantabria)
232,19 □ - A/D

4- "TALON HOTEL": IBERCHEQUE
47,00 euro

5- ESKIATZERA:
CANDANCHU egun 1: 39,50 □
LUZ ARDIDEN egun 1: 47,00 □

6- HARO (Errioxa):
Iturrimurri Hotela: 2 gau 116,35 □
eta kontsultarako beste aukera asko...

943 33 00 49 / 943 33 01 74

HERNANI BIDAIAK

hernanib@teleline.es
Urbietza, 6 - 20120 HERNANI

Arrandegia
Mari Fe

Nagusia 36
943 550 489

Orkola 17
943 552 741

HERNANI

**MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN
ATEAK ZABALDU DITU.**

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berri ditzu bere instalazioak eta inauguratzen ditu. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.

MENABI Txingurri pasealeku, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia

SKODA AUTO

